

HITZALDIAK

OSTEGUNA



TXILLARREKO SUKALDARIA

Txillarreko sukaldeko epeltasunean murgilduz, mahaiko hirugarren hankari erreparatuko zaio. Errezeta liburua ez den arren, euskal gatazkaren konponbidean emandako osagai eta gakoien inguruan hitz egiteko tarte izango da. Su baxuan egindako lan-isila ikusarazteko helburuarekin.

 **ASIER IBAIBARRIAGA**

 **EDURNE SAN MARTIN**

 **PELLO RUBIO**

 KULTUR ETXEA

 16:00



AURRERA VENEZUELA!

Agerikoa izaten ari da Amerikako Estatu Batuen (AEB) mundua menperatzeko nahia, eta logika inperialista horien baitan erabat murgilduta dago egungo testuingurua. Urtea Venezuelarekiko eraso inperialistarekin hasi genuen, Nicolas Maduro eta Cilia Flores bahiketarekin, baina, egungo eraso ulertu ahal izateko, aitzinera jo behar dugu. Hitzaldian zehar, egungo egoeran sakontzeko eta aurrera begirakoak ulertzeko, hainbat galdera erantzungo ditugu: Zer suposatu zuen iraultza Bolibaltarrak Venezuelan? Zer aldaketa ekarri zituen honek Venezuelan eta Latinoamerikan? Nola ulertzen dugu azkeneko erasu hau?

 **GLENNA CABELLO**

 **LUISMI UHARTE**

 KULTUR ETXEA

 16:00



GUREA EUSKAL SELEKZIOA!

Kirolak funtsezko papera betetzen du balio eta identitateen eraikuntzan eta horretaz oso kontziente dira Frantziar zein Espainiar estatuak. Gure herria sistematikoki ukatzen dute, baita kirol eremuan ere gure selekzioaren ofizialtasuna ez aitortzen. Hala ere, azken urte honetan aurrera urrats nabarmenak eman dira kirol desberdinetako euskal selekzioen partetik: EAEko euskal pilota selekzioaren ofizialtasuna, Futbol federazioaren zuzendaritza aldaketa, gizonezkoen futboleko Euskal selekzioa eta Palestinaren arteko partida...Itxaropentsuak izateko moduko berriak ematen dute...ala ez? Guzti honetaz aritzeko goi mailako hizlari izango ditugu gurean.

 **MIKEL LABAKA**

 **OIHANA AZKORBEBEITIA**

 **IHART ARAKISTAIN**

 KULTUR ETXEA

 16:00



MEMORIA ETA BORROKA: 50 URTE MARTXOAREN 3KO SARRASKITIK

Mende erdi igaro da 1976ko martxoaren 3ko Gasteizko sarraskitik. Garaiko testuinguru politikoaren inguruan jarduteko, gertakariak aztertzeko, eta haien etorkizunaren eta eskubideen alde altxatu zirenen aurkako erasoaren inguruan hitz egiteko tarte izango da. Finean, atzera begiratu eta aurrera egiteko memoria ariketa kolektiboa egiteko tarte izango da.

 **IZARRAITZ ZULUETA**

 **ANE SAUTUA**

 **AMAIUR ARBE**

 KULTUR ETXEA

 17:30



ESTATUSA(K) ETA KANPAMENDU BASEA

Estatus politikoaren inguruko eztabaida mahai gainean dago Euskal Herrian. Izan ere, egun gure herria osatzen duten hiru lurralde administratiboetan aukerak daude jauzi juridiko eta politiko kualitatiboa egiteko. Kanpamendu basea igotzeko aukerak irekita daude beraz. Baina zein urrats eman behar ditugu gailurretik pausu bat gertuago egoteko?

 **MIREN ZABALETA**

 **ARNALDO OTEGI**

 KULTUR ETXEA

 17:30



1975: DENA JOKOAN ZEGOEN URTEA

Estatus politikoaren inguruko eztabaida mahai gainean dago Euskal Herrian. Izan ere, egun gure herria osatzen duten hiru lurralde administratiboetan aukerak daude jauzi juridiko eta politiko kualitatiboa egiteko. Kanpamendu basea igotzeko aukerak irekita daude beraz. Baina zein urrats eman behar ditugu gailurretik pausu bat gertuago egoteko?

 **ARITZ LOPEZ**

 PROBALEKUA

 17:30

